



# KOMISARIO/A EGONALDIA DEIALDIA

## TABAKALERA ARTS INITIATIVE TOKYO

ACCIÓN CULTURAL ESPAÑOLA (AC/E), ETXEPARE EUSKAL INSTITUTOA, EU  
JAPAN FEST ETA THE AGENCY FOR CULTURAL AFFAIRS IN JAPAN IN THE  
FISCAL 2016 ELKARLANAREKIN

**AC/E**  
ACCIÓN CULTURAL  
ESPAÑOLA



**EU  
JAPAN  
Fest**



KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA

CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL  
CENTER OF  
CONTEMPORARY  
CULTURE

[tabakalera.eu](http://tabakalera.eu)

## 1. AURKEZPENA

Programa hau Tabakalera – Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa eta AIT – Arts Initiative Tokyo-ren arteko ekimen bat da, Acción Cultural Española AC/E, Etxepare Euskal Institutua, Eu Japan Fest eta The Agency for Cultural Affairs Government of Japan in the Fiscal 2016-en elkarlanarekin. Programa honen helburua japanier eta euskal kontestu artistikoaren ezagutza eta esperientziaren elkartrukaketa hedatzea eta sustatzea da.

## 2. TABAKALERA

Tabakalerak, arte-sorkuntzarako gunea den aldetik, egonaldi-programa bat du, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programa honen helburu nagusia arte-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpenarekin.

Artisten mugikortasuna bultzatu, hartu-eman kulturala eta diziplina aniztasuna lagundu, eta sare artistikoen eraikuntza sustatu nahiean, Tabakalera eta Arts Initiative Tokyo artisten trukerako egonaldi programa jartzen dute martxan.

Programa honek, Tabakalerak dituen beste batzuek bezala, espazio bat sortu nahi du artistak, eragileak eta haien proiektuak elkarren ondoan garatu daitezzen Tabakaleraren baitan, egoiliar eta eragile gonbidatuen artean lankidetzak sortzeko giroa eta aukera bultzatzeko helburuz.

## 3. AIT

AIT sei komisario eta arte antolatzailek fundatu zuten Tokion 2001ean. Garai hartan, gune falta zegoen Tokion artea pentsatu, ikasi eta hartaz hitz egiteko. Gainera, onartu berriak ziren irabazi asmorik gabeko erakundeen inguruko legeak, eta 2002an erabaki zuten Tokioko Udalari irabazi asmorik gabeko erakunde estatus ofiziala eskatzea.

Azken hamabost urteotan, Arts Initiative Tokyok (AIT) bere jarduera zentratu du zenbait egoitza programa garatzean, artista, komisario eta idazleen sorkuntza lana babesteko, mundu osoko hainbat erakunde eta fundaziorekin batera. Berriki Tokion egoitza sistema erabili duten ikasleak 90 izan dira, bost kontinenteetako 32 herrialdeetatik etorriak.

2016an egoitza programa bat antolatzen dute, Donostiako Tabakalerarekin elkarlanean, komisariotza ikerketarako ideia iradokigarriak dituzten



komisarioak eta ikuspegiak, ideiak eta ezagutza hedatzeko diziplinarteko praktikak trukatzeko, aldi berean landuz nola Espainian hala Japonian sustraitutako kultur testuinguruak.

#### **4. XEDEA**

Deialdi honen xedea da Arts Initiative Tokyo, Japonen, eta Tabakalera – Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, Donosita, artean komisarioi zuzendutako elkartruke egonaldi bat gauzatzea da. Programa hau Acción Cultural España (AC/E), Etxepare Euskal Institutoa, Eu Japan Fest eta The Agency for Cultural Affairs Government of Japan in the Fiscal 2016-en elkarlanarekin garatzen da.

Deialdi hau bertako komisarioei dago zuzenduta; hau da, EAE (Euskal Autonomia Erkidegoa) komisariotza-proiektuak garatzen dituztenentzat eta kontestu berriak esploratu eta ibilbide artistikoa hedatu nahi dutenentzat.

Egonaldiak lau asteko iraupena izango du, eta komisariotza-proiektua garatzeko lekua, testuingurua eta denbora eskainiko ditu. Egonaldia, 2016ko azaroa eta abendua bitartean gauzatuko da.

Deialdira aurkeztutako euskal komisarioen proiektu guztietatik proposamen bakarra hautatuko da Arts Interactive Tokyo-n egonaldia gauzatzeko.

#### **5. HAUTAGAIK / PARTE-HARTZAILEAK**

Deialdian parte hartu ahal izango dute partzialki edo soilik, EAE (Euskal Autonomia Erkidegoa) arte garaikidearen sektorean proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridiko, dela arte garaikidearen alorrean profesionalki komisariotza-proiektuak garatzen diharduten edo esparru horretan ibilbide profesionala hasi nahi duten pertsona edo taldeei.

Halaber, hainbat pertsona fisiko edo juridiko deialdiari, batera, aurkeztu ahal izango dute, haien artean erlazio formalizaziorik eskatu gabe. Kasu honetan 7. klausulako azken paragrafoan jarritakoa eman ahal izango da.



## 6. HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

Aurkeztutako komisariotza-proiektuak lan hildo berriak esploratzeko gaitasuna erakutsi beharko du, bai eta disziplina ezberdinen arteko loturak egiteko gaitasuna.

Proiektuak baloratzeko batzorde misto bat osatuko du Tabakalerak eta Arts Initiative Tokyo-k. Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Berrikuntza, orijinaltasuna, sormena eta kalitatea, proposamen kontzeptualki dagokionez.
- Arte garaikideko ez ohiko kontestu eta pentsamendu hildoekin loturak sortzeko gaitasuna.
- Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak orain arte garatutako ibilbidearekin.
- Proiektua egokia izatea Tabakalerak dagoeneko jorratzen dituen lan-ildoen eta interesen ikuspegitik.
- Aintzakotzat hartuko dira, halaber, proiektuak eta hautagaiak duen borondatea testuingurua ezagutzeko eta bertako eragileak eta proiektuko beste egoiliar batzuk bere proiektuan edota lan-saioetan txertatzeko.

Komisioak deialdia hutsik jo ahal izango du aurkeztutariko proiektuetariko inork meritu nahikorik ez duela biltzen iriztekotan.

## 7. EGONALDIRAKO ZUZKIDURA

Egonaldia Arts Interactive Tokyo dituen instalazioetan egingo da, Japonen. Programak prestazio hauek eskaintzen ditu:

1. Joan-etorriko bidaia, kanpoko artista edo eragilearentzat, bere ohizko bizilekuti edo lekutik unean dagoen tokitik.
2. Asegurua medikua kanpoko artista edo eragilearentzat.
3. Apartamentu bat guztiz hornitua (sukaldea, komuna, logela, lanerako txoko batekin, Interneterako sarbidea wifi bidez) hiri erdian.
4. 1.300€ [¥150,000] (zergak eta atxikipenak kanpo) egonaldiko lau asteetarako, dieta eta mantenurako. Taldeen kasuan, zenbateko orokor bat finkatuko da haien egonaldirako.



5. Laguntza kontzeptuala proiektua garatzeko, eta laguntza inguruko eragile eta proiektuak ezagutzeko, egoiliarrek hala eskatuz gero.
6. 875€ [¥100,000] (zergak eta atxikipenak kanpo) ikerketa ordainsariak.

Aukeratutako proiektua kolektibo batek aurkeztu badu (hainbat pertsona fisiko edo juridikok, elkarren arteko harremanak formalizatzeko 5. klausulako bigarren lerrokadan adierazitako moduak bete beharrik izan gabe), adierazitako prestazioak emango zaizkio dela kolektiboak berak izendatutako pertsona fisikoari, dela kolektiboak eskatuta eta Tabakalera diskrezioz erabakita, erresidentziaren prestazio-zenbatekoaren kuantifikazio bitartez (posible den neurrian) eta hura esleituta kolektiboko kide bati, batzuei edo guztiei, esandako prestazioetakoren bat, zenbateko baliokide osoarekin.

## 8. EGONALDIAREN IRAUPENA ETA GARAPENA

Egonaldiak lau asteko iraupena izango du, 2016eko azaroa eta Abendua bitartean gauzatuko delarik.

## 9. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdira aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- Onartutako eskaera bertan behera utziz gero, hautagaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.
- Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziora huts egiteak egonaldia eta emandako laguntzak eta erakusketa bera bertan behera uztea ekar lezake.
- Egonaldia bera eta haren inguruan sortutako jarduerak Tabakalera egonaldi-programaren eta lan-espazioak lagatzeko programaren inguruan garatzen duen programazioan sartu ahal izango dira.
- Komisarioak egonadi bitartean Tabakalera eta AIT programarekin elkarlana egingo du, komisariotza-proiektuaren edo komisariotza praktiken inguruko aurkezpen publiko bat eginez.
- Tabakalera izan eta gero, beren egonaldiari buruzko memoria bana aurkeztu beharko dute egoiliarrek.



## 10. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko epea **2016eko uztailaren 26tik abuztuaren 29ra** bitarte egongo da zabalik. Deialdien emaitza, irailaren 5ean jakin araziko da. Hautagaiak aste beteko epea izango du egonaldiaren onarpena egiteko.

Izen ematea Tabakalerako webgunearen bitartez egitea beharrezkoa da; honetarako, izen emate orria bete eta jarraian zehazten den ordenean ingelesez hurrengoko dokumentazioa atxekituz:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia, jaioteguna. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena eta hautagaiak zergatik egin nahi duten proiektua AITn egoiliar diren bitartean (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
3. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.
4. Egonaldia bitartean premia guztien aurreikuspena.
5. Egonaldirako denboraldi egokiena.
6. Sozietatearen CVa eta bibliografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).

Dokumentazio guztia PDF formatuko (gehienez 10 mega, 10 orrialde) dokumentu baten bitartez helaraziko da; dokumentuaren izena honakoa izan behar duelarik: Izena\_abizena\_modalitatea; adibidez: anne\_zenit\_AIT.

Hautatutako hautagaiak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte 10 eguneko epean, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontaktzen hasita:

NANaren, IFKren edo pasaportearen kopia.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 6o. artikuluan deskribatutako egoeraren batean sartuta ez egotearen adierazpena. Dokumentu hau Tabakalerako web-orritik deskargatu daiteke, eta modalitate bakoitzari dagokion deialdian aurkituko da.

Kolektiboen kasuan, adierazpen horrek hautagai guztiei buruzkoa izan beharko du.

## 11. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatu behar dute; ildo berean, Tabakalerak eta Arts Initiative Tokyo modu baketsuan erabili ahal izango dituela bermatuko dute, eta berme hori beteko ez balute, Tabakalerak eta Arts Initiative Tokyo, eta bai eta hauen kolaboratzaileak ere, zuzenean edo zeharka jasan ditzakeen kalte edota galeren erantzukizunetik salbuesten dute esanbidez Tabakalera eta Arts Initiative Tokyo.

Hautatutako pertsonak Tabakalera, Arts Initiative Tokyo eta Acción Cultural Española (AC/E)-ri lagako dizkio proiektu osoari edo proiektuko elementuen zati bati nahiz proiektuaren garapenari dagozkion ustiapen- eta irudi-eskubideak, legez baimendutako gehieneko aldirako, mundu osoan, Tabakalera eta Arts Initiative Tokyo-ren jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo liburuxkak paperean edo digitalean argitaratzeko edo jardueraren sustapenerako, baina merkataritza-jarduerak esanbidez alde batera utzita.

Aukeratutakoak Tabakalera, Arts Initiative Tokyo, Acción Cultural Española (AC/E), Etxepare Euskal Institutoa eta Eu Japan Fest-i bere izena deialdi honen xedeen barruan komenigarritzat jotzen duen moduan erabiltzeko baimena emango dio, esanbidez.

## 12. DATUAK BABESTEA

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Tabakalera eta Arts Initiative Tokyo-ren fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau, deialdiaren administrazio-kudeaketako jardunak, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko, eta parte-hartzaileek onartu egin behar dute beren datuak fitxategi horretan sartzea. Horri dagokionez, helbidea honako hau izango da: Tabakalera, Andre zigarrogeila, 1, Donostia, eta Arts Interactive Tokyo: Twin Bldg. Daikanyama B-403, 30-8 Sarugaku-cho, Shibuya-ku. Parte-hartzaileak bere laguntzailearen baten datu pertsonalak ematen baditu, datuak Tabakalerari xede bererako jakinarazteko haren baimena izan beharko du.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak posta elektronikoa bidez baliatu behar dira; mezu elektronikoa pgaraikeia@tabakalera.eu helbidera bidali, gaia honako hau duela: "sartzeko baimenak" mezuarekin batera datuen titularrak sinatutako gutun bat ere

**TABAKALERA**



aurkeztu beharko da, eta jakinarazpenak jasotzeko helbide bat adierazteaz gain, NANaren edo antzeko beste dokumentu baten kopia ere bidali behar da.

### **13. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK**

Parte-hartzaileek Tabakalera eta Arts Interactive Tokyo-ko gunetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak eta abar) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenerako erabiltzearren; era berean, erabilera hori baimenduko dute.

Hori guztia ohorerako eskubidearen aurkako erabilera edo aplikazio guztiak alde batera utzita, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilarri buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitako moduan. Eremu horretakoa ez den beste edozein erabilera baimen honetatik kanpo geratzen da.

### **14. OINARRIAK ONARTZEA**

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

**Info +:**

[pgaraikideak@tabakalera.eu](mailto:pgaraikideak@tabakalera.eu)

943011311

[www.tabakalera.eu](http://www.tabakalera.eu)